


XIBEROAKO XENDAK

59 mendi ibilbide - 35 gailur



Sortzez Larraintarra, Pipas edo Robert Larrandaburu aspaldian ezaguna dugu mendi munduan. Ibiltari handi honek munduko mendi kasko gorenak igo ditu, Everest gailurreraino, bere baitako muga gaindituz, usu. Xiberoako mendien miwesmena eta maitasuna, ez du galdu alta.

Mendietako leku izenak euskaraz dira bistan dena, eta lekua-
ren inguruko xehetasunak salatzen dizkigute. Izan ere, idazlearen iduriko IGN kartetan agertzen diren toponimoen ortografia euskara arautuan jartzea ezinbestekoa eta premiazkoa zen hemen.

Pipasek Xiberoako mendietako bidea zabaltzen digu: Maule eta Garindaine gaineetatik, Lexantzümendi kaskora, Pixtako ur-jauzian freskura hartuz. Ibilbideak xeheki esplikatuak dira, norabideak bi edo hiru kilometra guziz eskainiz, autoak uzteko lekuak eta detaile teknikoak jakinaraziz. Gisa horrez, xenda zaharrak edo ezohiko xendak har daitezke, Pettarra, Arbaila eta Basabürüko lurretan gaindi. Begi kliska kulturelekin herrietako bizia ezagutuko dugu, Barkoxen, Etxahun koblakaria gogoraraziz adibidez.

Gure aitzinekoen xendetatik ibiltzea proposatzen digu hemen, gehienak historiaurreko artzainek ideki baitzituzten: ibiltari orok gogoan izanen du gainera, bide horiek hain ederrak badira, gure artzainen egun guzietako lanari esker dela, eta hau errespetatu behar dugula.

Bost zailtasun mailako xenda hauek ibiltari guziak xoratuko ditu, bisitariak ibiltari amorratuak bezala!

Egilea : Robert Larrandaburu. Larrainen sortua, haur denbora Parisen pasatu zuen baina egun Atharratzen bizi da. Mendizale handia, Euskal Herriko zoin munduko tontor famatuena igo ditu, hauen artean Everest gailurra. Mendi laguntzaile profesionala da eta ibilaldi edo bizikleta ateraldiak antolatzen ditu Mertxe, bere emaztearekin. Gida liburu anitzetan parte hartu du azken urteetan.

Bilduma MENDI GIDAK

Hizkuntza Euskara

Orriak 224

Taxuera 135 x 210 mm

ISBN

978-84-8216-834-0



9 788482 168340

sua
EDIZIOAK